

Zarauzko Udala

Ayuntamiento de Zarautz

1999

AURKIBIDEA/ÍNDICE

I. SARRERA	3
II. ONDORIOAK	4
II.1 Legea betetzea	4
II.2 Kontularitzako alderdiak	5
II.3 Kudeaketa alderdiak eta gomendioak	6
III. FINANTZA ANALISIA	12
IV. URTEKO KONTUAK	15
I. INTRODUCCIÓN	19
II. CONCLUSIONES	20
II.1 Cumplimiento de la legalidad	20
II.2 Aspectos contables	21
II.3 Aspectos de gestión y recomendaciones	22
III. ANÁLISIS FINANCIERO	28
IV. CUENTAS ANUALES	31
ANEXOS	35
A.1 Ingresos corrientes	35
A.2 Contratación	36
A.3 Transferencias y subvenciones	37
A.4 Junta Municipal de Beneficencia	38
ALEGAZIOAK	39
ALEGACIONES	43

Vitoria-Gasteiz, 2001eko maiatzaren 9a

Vitoria-Gasteiz, 9 de mayo de 2001

I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), bera araupetzen duen 1/88 Legean finkatutakoari jarraiki, Zarauzko Udalaren 1999 urtealdiko Kontu Orokorra eta ekonomi-finantza jarduera aztertu eta txosten hau mamitu du, 2000ko apirila-2001eko martxoa bitarteko Urteko Lan Programan barne hartu zuena.

Egindako lanean udal administrazioa, udalaren erakunde autonomoak eta Ongintzako Udal Batzordea aztertu dira (ez dago sozietate publikorik). Hona hemen aztertu diren alorrak:

- antolakuntza orokorra
- aurrekontu kontularitza
- aurrekontu eta kontularitzako kontrolak
- tributuen kudeaketa eta dirubilketan erabili diren prozedurak
- langileen kudeaketa
- zerbitzu eta obren kudeaketa
- dirulaguntzak ematea eta kontrolatzea

Zarauzko Udalak 19.716 biztanle zituen 98ko urtarrilaren 1ean (hori da eskuragarri dagoen azken zifra). Bere egituraren barruan hiru erakunde autonomo ditu:

- Udal Kiroldetgia.
- Turismo Bulegoa.
- Gizarte-Zerbitzuetarako Fundazio Publikoa (udal haurtzaindegia).

Horrez gain, Ongintzako Udal Batzordeko titularra ere bada, nahiz eta entitate horren aurrekontu eta kontuak udalekoetan ez sartu, entitate independentea delako.

Udala ondoko sozietate hauetako partaide da:

- Zarauzko Industrialdea, SA (%24,5eko partaidetza, beste bi akziodunak hauek dira: Sprilur, SA, %51rekin eta Gipuzkoako Foru Aldundia, %24,5ekin).
- Abendaño Industri Sustapena, SA: poligono horretako industria lurzorua kudeatzeko (%50eko partaidetza, gainerako %50aren jabe Gipuzkoako Foru Aldundia da).

Bestalde, ondoko hauetako partaide ere bada: Gipuzkoako Uren Partzuergoa, Urola-Kosta Mankomunitatea eta Urkome mendi nekazaritzako elkarteak.

II. ONDORIOAK

II.1 LEGEA BETETZEA

Langileak

1. Udalak 8,5 milioi pezeta ordaindu zizkien 26 zinegotziri aztergai dugun urtealdian bileretara joateagatik edo beren arlo eta zerbitzuetako koordinazio lanak egiteagatik, inolako atxikipen fiskalik egin gabe eta Foru Ogasunari ordainsari horien aitorpenik egin gabe.
2. Udalak 1999rako EUFALEBA aplikatzea onartu zuen, aurreko urtealdiarekiko %1,9ko soldata igoerarekin. Hori 1999ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen aurka doa, izan ere lege horrek ezartzen du urte horretako ordainsariak ezin zirela igo %1,8 baino gehiago (49/98 Legearen 20.2 artikulua).
3. Udala lanpostuen zerrendako “destino osagarriaren maila” atalaz baliatzen da langile bakoitzaren ordainsari maila adierazteko (edo EUFALEBA maila). Hori arauz kontrakoa da eta, gainera, gaizki ulertuak sortaraz ditzake, legezko mailen tartekak eta EUFALEBAkoak desberdinak baitira (Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 15.1 artikulua eta Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen ordainsarien 343/92 Dekretuaren 1.2 artikulua).

Kontratazioa

1999an 647 milioi pezetako gastua eragin zuten 21 kontratu aztertu ditugu, eta honako arau hauste hauek aurkitu ditugu (ikus A.2 eranskina):

4. Udal ogasuneko eraikinaren ingurua urbanizatzeko kontratua (13 milioi pezeta) eta asteburuetako ekitaldietarako soinu sistema jartzekoa (6 milioi pezeta) publizitate eta lehiaketarik gabe esleitu ziren. Azken kontratu horretan, gainera, ez ziren errespetatu araudian aurreikusitako izapideak, hala nola administrazio baldintzen eta baldintza teknikoaren plegua egitea, eta kontratistari ez zitzaion ogasunarekiko eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak zituenik egiaztatzea eskatu (Administrazio Publikoaren Kontratuen 13/95 Legearen 11 eta 20.f artikulua).
5. Kontuhartzaileak ez zuen 10 kontratazio espedienteren baimena fiskalizatu, ezta haien esleipenena ere (APKLren 11.2.g artikulua). Kontratu horiek 195 milioi pezetako kopurukoak izan ziren.
6. Guztira 79 milioi pezetan esleitutako bi kontratutan lehiatzaileei ez zitzaion eskatu kontratuaren helbururako enpresaren sailkapena (APKLren 25. artikulua).
7. Santa Maria elizako dorrea zaharberritzeko lanak 36 milioitan esleitu ziren, baina 47 milioitan likidatu, udalak, dagoeneko eginda zeuden lanak baliozkotze aldera, hasierako egitasmoarekiko onartutako aldaketa baten bidez (APKLren 11.2 eta 146 artikulua).

Dirulaguntzak

8. Udalak ez ditu Cabledis, SA herriko telebistari emandako dirulaguntzaren gastuak egiaztatu (14 milioiko dirulaguntza). Arau hauste hori bera egin du Turismo Bulegoa erakunde autonomoari emandako 12 dirulaguntzetan ere (guztira 4 milioi pezeta). Gainera, orohar, dirulaguntzak ematerakoan ez da egiaztatzen onuradunek eguneratuak ote dituzten beren zerga betebeharrak (Toki Entitateen Aurrekontu Araudiari buruzko 96/92 FDren 50. artikulua).

Aurrekontua

9. Udaleko osoko bilkurak 10 milioiko dirulaguntza bat onartu zuen 1999ko maiatzean, gastu horretarako aurrekontu kontsignaziorik ez zegoela. Gastua onartu aurretik aurrekontu aldaketa egin beharra zegoen, baina ez zen egin 1999ko abenduaren 31ra arte (Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko 4/91 FAren 19. artikulua).

Ongintzako Udal Batzordea

Udalak 1849.6.20 Legea aplikatzearen ondorioz sortutako Ongintzako Udal Batzordeak Santa Ana Zaharren Egoitza kudeatzen du. Historikoki batzorde honek bere aldetik jardun du, lege horrek izaera publikokoa zela ezarri arren.

10. Udalak ez du Ongintzako Udal Batzordea entitate publiko menpeko moduan kontrolatzen eta, hori dela eta, batzordeak ez du errespetatzen aurrekontua kontrolatzeko araudi ekonomiko orokorra. Osoko bilkurak ez ditu entitate honen estatutuak onartu, ez eta honek aplikatzen dituen prezio publikoak, aurrekontua eta urteko kontuak ere, eta udal kontuhartzaitzak ez ditu bere jarduerak fiskalizatu.

11. Batzorde honek aldi baterako 14 langile kontratatu zituen 1999an, baina bi alditan bakarrik erabili zituen 1998an egindako hauta probak gainditu zituztenek osatutako zerrenda. Gainerako 12 kontratuetan, guztira 9 milioi pezetako ordainsariak eragin zituztenetan, ez ziren berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatu.

II.2 KONTULARITZA ALDERDIAK

12. 1999ko urtealdia ixterakoan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergako eta beste tributu batzuetako hainbat likidazio zegoen sarrera gisa kontabilizatzeko, 25 milioi pezetakoak lehenengo kasuan eta 10 milioikoak bigarrenetan. Akats horiek informatika sistemaren aldaketa dela eta sortutako arazoengatik gertatu ziren.

II.3 KUDEAKETA ALDERDIAK ETA GOMENDIOAK

Aurrekontuak eta kontularitza

13. Itundutako gastuaren kontrola (D fasea)

Udalak itundutako gastua kontratazio garrantzitsuetan bakarrik kontabilizatzen du, Gobernu batzordeak esleitzen dituenetan, alegia. Gainerako kasuetan ez dago kontularitzako anotaziorik, ez eta kontuhartzailearen kontrolik ere dagokion ordain-agiria iritsi arte. Udalak “gastu proposamena” izeneko agiri bat dauka, lanen enkargua bertan adierazteko baina Kontuhartzailetzara gero bidaltzen da, ordain-agiriarekin batera.

“Gastu proposamena” behar bezala erabili, agiri hau zenbateko kopuruekin aplikatu daitekeen arautuz, eta gastu konpromisuaren D fasea kontabilizatzea.

14. Beste alderdi batzuk

- Udalak, ekitaldian zehar egingo dituen eragiketen Memoria deskribatzailea eta eragiketa horien bitartez lortu nahi diren helburuen memoria sartu beharko luke bere urteko aurrekontuan. Horrela, bai alkateak eta bai udalbatzak kudeaketa hobeto jarraitzeko aukera izango lukete.
- Urtealdian aurrekontuetan jasotako inbertsioen exekuzioa oso baxua da, kapituluaren behin betiko aurrekontuaren %48, aurreko urtealdian egin gabe gelditu eta 1999ko aurrekontuan sartutako egitasmoen zenbatekoa baino are eta baxuagoa (aurrekontu plangintzako huts horiek alde batera, udalaren inbertsio bolumena altua da, III. atalean –Finantza Analisia– adierazten den moduan).
- Aurrekontuz kanpoko saldo zordunak, 103 milioi pezetakoak, zuzenean erregularizatzea ez da zuzena, urtealdiko gastuen aurrekontuari egotzi behar baitzitzaizkiokeen eta gauzatzen ari den ordainketa modura kontuetaratu, erregularizatutako kontuan era bereko sarrera baten kontura.
- Dedikazioa duten kargudunen ordainsariak eta konfidantzako aldi baterako langileen gastuen artikulua berezitan kontabilizatu behar dira (10 eta 11), eta ez behin-behingo langileen partida beretan. Gainera, bileretara joateagatik ordaintzen diren dietak 2. kapitulan sailkatu behar dira, eta talde politikoei ematen zaizkien kopuruak dirulaguntzen 4. kapitulan.

Tributuen kudeaketa eta dirubilketa

15. Foru Aldundiak kudeatzen dituen zergak

Udalak kudeatzen ditu Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga. Gertatutako gorabeheren berri ematen dio udalari hilabetero, eta hiruhilabetero likidazioak egiten ditu. Udalak bidaltzen dituen ordain-agiriei baja ematen die eta hiruhilabeteroko ordainketak aurrekontu arruntean adierazten ditu. Kobratzeke dauden saldoen kontrola ere egiten du kontularitzatik kanpo (kontrol horren arabera, 99.12.31n kobratzeke zeuden ordain-agiriak 27,5 milioi pezetakoak ziren).

Exekuzio-bidera bidalitako ordain-agiriak kontularitzako egoeretan agertu behar dute sartzeko dauden ordain-agiri gisa, eta kudeaketa prozedurak ezarri behar dira kobraketa atzeratzen den ordain-agirien egoera aztertzeko. Udalak kontuan har dezakeen beste aukera bat, era berean, premiamendu bidearen kudeaketaz zuzenean arduratzea izan daiteke.

16. Beste alderdi batzuk

- Uraren eta estolden lauhileroko padroiak alkatearen onarpenik gabe jarri ziren kobratzeko 1999. urtean.

Langileak

17. Plantilla

1999ko urtealdian udalak iraupen desberdinetarako behin-behineko 61 langile kontratatu ditu. Kopuru hori oso altua da urtealdiaren hasieran lanpostuen zerrendan 81 pertsona zituen entitate batentzat. Langile hauei egindako ordainketak langilegoaren gastu osoaren %28koak izan dira 1998an eta %37koak, berriz, 1999an. Urtealdian zehar lanpostuen zerrendan egindako aldaketa dela bide, plantilla osatzen duten pertsona kopurua 90era igo da. Horrela lortu dena egoera zertxobait konpontzea izan da bakarrik.

Plantila egonkorraren gaur egungo beharrak zehaztu eta, betetzeko dauden lanpostu dagoeneko sortuetan bitarteko kontratuak egin harik eta hautaketa probak egiten diren arte. Behin-behineko kontratuen bidez bete beharreko lanak zein diren zehaztu irizpide murrizgarriak erabiliz.

18. Behin-behineko kontratuengatik egindako erreklamazioei buruzko epaiak

Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiak finkotzat jo ditu 2000ko urtarrilean eta martxoan lan edo zerbitzu jakinerako bi behin-behineko kontratu, 1992tik eta 1995etik zetozenak. Gainera, udalak dagozkion lanpostuak sortu behar ditu, eta langileak aukeratzeko hautaketa prozesu baten bidez bete. Une horretan enpleguari kalte ordaina ordaindu beharko dio ez bada aukeratu gertatzen. Lanpostu horietako bi dagoeneko sortuak zeuden lanpostuen zerrendan, eta aurreikusia dago laster lanpostu hori betetzeko hautaketa probak egitea. Baina bestea txostena egin dugun egunetan ez dago oraindik sortua.

Egoera hori konpondu, gelditzen den lanpostua sortuz eta hautaketa probetarako dei eginez.

19. Beste alderdi batzuk

- Elkarkidetzari: 97-99 arteko EUFALEBA aplikatuz, Elkarkidetzari ekarpenak egiten zaizkio erdi bana Udalaren eta nahi duten langileen artean. Udalak 1999an egindako ekarpena

langilearen urteko ordainsariaren %1aren parekoa da. Pentsio sistema osagarriari egiten zaizkien ekarpen publiko hauek legezkoak diren ala ez oso garbi ez dagoenez, Konstituzio Epaitegian aurkeztutako errekurtsioa ebaztearen zain baitaude, udalak ez luke urte askotarako ekarpen konpromisurik hartu behar, auzitegiak ekarpenen kontrako epaia emanez gero ebazpen hori berehala aplikatu ahal izateko.

- Udalak nominako “erretserbako orduak” kontzeptua erabiltzen du dedikazio bereziko osagarria duten langileek lan orduetatik kanpo lan egiten dituzten orduak ordaintzeko (hau da, osagarri hori orduak benetan egin ahala ordaintzen da, eta ez hainbesteko finko bat hilabetean). Prozedura hori ez litzaieke aplikatu behar dedikazio berezia ez duten langileei (1999an 4,1 milioi ordaindu zitzaizkien kontzeptu horrengatik dedikazio berezia ez zuten 62 langileri). Izan ere dedikazio berezikoak ez diren langileei aparteko orduak ohiko prozeduraren bidez ordaindu behar zaizkio.
- Bileretara joateagatik dauden dietak bileretara benetan joan izana egiaztatzen bada bakarrik ordaindu behar dira.
- Udalak ez ditu espezieetan egiten diren hainbat ordainketa, esate baterako aseguruak eta interesik gabeko maileguak, ondorio fiskaletarako aitortzen.

Kontratazioa eta gastuak

20. Munta txikiko kontratuak.

Bi milioitik beherako hornidura eta zerbitzu kontratuak eta bost milioitik beherako obra kontratuak ez dute tramitazio formala bete beharrik, hala ezarrita baitago araudian. Kontratu txiki hauen inguruko udalaren barne araudiak aipatutako kontratuak esleitzeko organo baimenduak zein diren zehaztu baino ez du egiten (Aurrekontua Egiteratzeko Udal Arauaren 8. artikulua).

Udalari gomendatzen diogu munta txikiko kontratuak arautu ditzala, eta kopuru bat finka dezala, kopuru horretatik gorako kontratuarentako hiru eskaintza eskatu eta gutxieneko baldintza formalak bete behar izateko.

21. Erosketa zerbitzua

Udal zerbitzu bakoitzak egiten ditu bere erosketak era deszentralizatuan.

Hornitzaileak aukeratzeko, produktuak homologatzeko, eskaerak eta enkarguak izapidetu eta haien jarraipena egiteko eta abarretarako egiten diren kudeaketak nahiko garrantzitsuak eta konplexuak dira udalean eta, horrenbestez, komenigarria litzateke zeregin horietarako atal berezi bat eratzea.

22. Beste alderdi batzuk

- Gurutze Gorriak egiten duen hondartza zainketa (17 milioi pezeta) 1994an izenpetutako hitzarmen baten bidez arautu zen. Gure gomendioa da hondartzen zainketa lehiaketa bidez esleitzea.
- Obra kontratuen pleguetan, esleipen irizpideen artean, kontratistaren alde aurreko onarpenari buruzkoak diren irizpideak sartzen dira, eta ahalmena ziurtatzeko aldiak bakarrik egiaztatu beharrekoak direnak: kontratuaren helburu zehatzarekiko esperientzia teknikoa eta giza eta tresneria baliabide erabilgarriak. Administrazioak onarpen aldiak egiaztatu behar du ea eskatutako lanak egiteko moduko mailarik baden, eta esleipen aldiak bakarrik erabili behar dira aurkeztutako egitasmoak baloratzeko irizpideak, esate baterako, prezioa eta, hala badagokio, hura berrikusteko formula, exekuzio epea, materialen kalitatea, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, obren mantenimendua, berme epea, eta abar.
- Udal arkitektoa (3,2 milioi pezeta 1999an) lehia bidezko prozesu bat dela bide aukeratu zen, eta zerbitzuak alokatzeko kontratu bat izenpetu zen, gaur arte luzatu dena. Udalak beste deialdi bat egin beharko luke, indarrean dagoen araudian ezarritako moduak erabiliz.
- Turismo Bulegoa erakunde autonomoaren erakusketak muntatzeko lanen kontratuan (6 milioi pezeta) ez zen egiaztatu ea esleipendunak eguneratuak zituen bere zerga betebeharrak (APKLren 20.f atala).

Dirulaguntzak

23. Dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza

Udalak ez ditu arautu dirulaguntzak emateko aplikatu daitezkeen prozedura orokorrak, baina 1999an 5 dirulaguntza ildotarako arau berezia egin du.

Honako alderdi hauek arautzen dituen dirulaguntza araudi bat onartzea:

- Dirulaguntza izendunen kontrolaren prozedura.
- Laguntzak deialdi publikorik egin gabe emateko prozedura.
- Dirulaguntza deialdi orokor guztiei dagozkien alderdiak: nortasun juridikoaren inguruko dokumentazioa, Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak egunean edukitzea, espedienteen dokumentazioa, kontuhartzaitzako kontrola, aurrerapenak emateko aukera, etab.

24. Beste alderdi batzuk

- Aurrekontuaren dirulaguntzen inguruko eranskinak dirulaguntza arruntan aurrekontu aplikazioak zerrendatu baino ez ditu egiten. Dirulaguntza izendunak berariaz adierazi beharko liriteke bertan, bai eta egin beharreko deialdi orokorrak eta aurreikusitako kopuruak ere.
- Dirulaguntza izendunak: holakotzat jo behar dira Cabledis, SA herriko telebistari emandako laguntzak, 1999an 14 milioi pezetakoak izan zirenak, Jubilatuen Elkarteari emandakoak (milioi

bat), Eusko Ikaskuntzari emandakoak (0,4 milioi) eta Arraun Elkarteari emandako dirulaguntza arruntak (0,6 milioi).

- Dirulaguntza hauek emateko baldintzak arautu eta publizitate formala egin: gizarte zerbitzuetako laguntzak, larrialdi sozialetako laguntzen osagarriak direnak (3,7 milioi pezeta), euskararen sustapena (osagarrien bereizketa eginez, batzuk izendunak izan baitaitezke: Basarri eta Mitxelena Sariak), ikastetxeetarako laguntzak, Turismo Bulegoa erakunde autonomoak ematen dituen laguntzak.
- Udalak elkarte bati 109 milioi pezetako urbanizazio kuotak atzeratzeko aukera eman zion %0,5eko interes tipoan. Operazio hori dirulaguntza gisa onartu eta kontabilizatu behar zen, onartutako tipoaren eta diruaren interes tipo legalaren arteko aldea kontuan hartuta 1999an %5,5ekoa baitzen.
- Ikastetxeetako kirol instalakuntzen erabilera publikoa: ikastetxeei beren kirol instalakuntzak erabiltzeagatik ematen zaizkien ordainak ez dira dirulaguntzak, eta 2. kapituluan kontabilizatu beharko lirateke.

Ondasun zerrenda eta ondarea

25. Ondasun zerrendaren eta ondarearen kontrola

Ondasun zerrendaren urteroko aldaketak ez dira datu kontableekin alderatzen. Ondarearen kudeaketaz hainbat zerbitzu arduratzen dira: ondasun zerrendaren fitzez Idazkaritza arduratzen da, aseguruaren kudeaketaz Langile Saila eta informazio kontableaz Kontuhartzaitza. Bestalde, Kultura eta Informatikan ondare zerrenda partzialak daude.

Ondarea kontrolatzeko bitartekoak jartzea eta kontrol hori zentralizatzea. Ondarearen elementu kopuruari begira (108 elementu aseguru polizan) eta horien balioari begira, beharrezkoa da horretaz bereziki arduratuko diren langileak izendatzea.

Finantza eragiketak eta diruzaintza

26. Diruzaintzako soberakinak eta maileguak

Diruzaintza gerakina oso altua da, aurrekontuetan jasotako inbertsio gutxi egiten delako, eta urtealdiaren itxieran 692 milioi pezetako fondo likido erabilgarriak daude.

Indarrean dagoen mailegu bakarra 99.12.31n 675 milioi pezetakoa da, 1997an izenpetua eta 2012ra arteko indarraldia duena. Interes tipo aldakorra zuela kontratatu zen, gorabehera tarte baten barruan, %6,1etik ez jaisteko moduan.

Diruzaintzako soberakinekin finantza eragiketa bat egitea, kontuan hartuta seguru aski ez duela zentzurik hura eta gaur egungo mailegua batera mantentzeak. Maileguaren baldintzak ikusirik, gomendatzen dugu, dena den, finantzaketa alternatiba hobeak lortzeko aukerak aztertzea.

Erakunde autonomoak eta Ongintzako Udal Batzordea

27. Erakunde autonomoen jarduera

Erakunde autonomoen jarduerak, eragiketa bolumenak eta plantillak ez dirudi entitate desberdinu gisa, –erabakitzeke ahalmena duten organo bereziekin eta erregistro kontable propioekin– mantendu behar izatea justifikatzen dutenik.

Udalak erakunde autonomoak desegiteko aukera azter lezake, eta haiek udalaren zerbitzu gisa funtzionatzea.

28. Beste alderdi batzuk

- Ongintzako Udal Batzordeak bere higiezinaren aseguruaren nondik norakoak berrikusi behar ditu, Santa Ana Egoitzako aseguruaren bakarrak erakutsi ahal izan baitigute.

III. FINANTZA ANALISIA


FINANTZA ANALISIA	Milioi pta.n				Mila pta.n/biztanleko				Refs. 98 (*)	
	Año				Año				Gip	Eusk
	96	97	98	99	96	97	98	99		
Zerga zuzenak (1 kap.).....	503	538	577	618	26	27	29	31	27	27
Zeharkako zergak (2 kap.- EIOZ / ICIO).	119	99	140	37	6	5	7	2	6	6
Tasak, prezioak eta bestel. (3 eta 5 kap.)	445	528	491	467	23	27	25	24	28	25
Transf. eta dirulag. arruntak. (4 kap.) ...	953	1.141	1.202	1.295	48	58	61	66	64	59
A. Sarrera arruntak guztira	2.020	2.306	2.410	2.417	103	117	122	123	125	117
Langile gastuak (1 kap.)	499	519	573	620	25	26	29	31	33	33
Erosk., zerb. eta dirulag. (2 eta 4 kap.)..	863	903	1.114	1.173	44	46	56	60	50	44
B. Funtzionamendu gastuak	1.362	1.422	1.687	1.793	69	72	85	91	83	77
Aurrezki Gordina (A-B)	658	884	723	624	34	45	37	32	42	40
Finantza gastuak (3 kap.)	74	63	53	44	4	3	3	2	4	3
Emitza Arrunta	584	821	670	580	30	42	34	30	38	37
Jasotako kapital dirulaguntzak	887	492	192	287	45	25	10	15	9	8
Inbertsioak (6, 7 eta 8 kap.)	1.427	1.147	873	720	72	58	44	37	30	24
Diruzaintza gerakina	793	989	903	835	40	50	46	42	40	41
Zorpidetza	817	790	730	675	41	40	37	34	78	60

(*) Gipuzkoa / Euskadiko 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko Udalen batez bestekoak 1998an

Biztanleak 19.716

SARRERA ETA GASTU ARRUNTAK


Mila pta./biztanleko



Azpimarratzekoak dira erosketak, zerbitzu eta dirulaguntzetako gastuak, 56-60 mila pezeta biztanleko 1998-99an, 50 mila pezeta biztanleko erreferentziaren aldean, eta 96-99 bitartean %36 hazi dira (udalerriko biztanle kopuruak %3,4 egin du gora). Sarrera arrunten hazkundera %20 hazi da tarte horretan.

AURREZKI GORDINA ETA EMAITZA ARRUNTA


Mila pta./biztanleko



Aurrezki gordina eta emaitza arrunta erreferentzi gisa hartutako udalena baino zertxobait baxuagoak dira. Azken magnitude hori 34-30 mila pezeta biztanlekoakoa izan da, 38 mila pezeta biztanleko balore konparatiboaren aldean.

INBERTSIOAK


Mila pta./biztanleko



Inbertsioak oso altuak izan dira, nahiz eta beheranzko joera duten aztertutako lau urtealdietan (72 mila pezeta biztalezetik 37ra). Horren arrazoi nagusia Aritzatalde eta Salbide poligonoen urbanizazioan dago (1.622 milioi pezeta). Aztertutako aldiaren egindako beste inbertsio garrantzitsu batzuk hauek izan dira: Gipuzkoa kalearen urbanizazioa (205 milioi pta), Itsas ertzeko pasealekua (188 milioi pta), Irain Erreka bideratzeko lanak (180 milioi pta) eta Ogasuneko eraikina zaharberritzeko lanak (95 milioi pta).

ZORPIDETZA

Mila pta./biztanleko



Finantza egoera osasuntsua da, izan ere 1998-1999ko zorpetzea 37-34 mila pezeta biztanlekokoa izan baita, erreferentziako udalerrienaren erdia baino gutxiagokoa (78 mila pezeta biztanleko 1998an).

IV. URTEKO KONTUAK

ZARAUZKO UDALA / Urteko kontuak

1. 1999 EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA							Milioi pta.	
SARRERAK	___Aurrekontua___			Eskubid. Obligaz.	Kobrak./ Ordaink.	Egitek.	%	
	Hasierakoa	Aldak.	B-betik.					
1.- Zerga zuzenak.....	538	-	538	618	579	39	115%	
2.- Zeharkako zergak.....	80	-	80	37	37	-	46%	
3.- Tasa eta prezio publikoak.....	448	-	448	445	306	139	99%	
4.- Transf. eta dirulag. arruntak.....	1.256	-	1.256	1.295	1.275	20	103%	
5.- Ondarezko sarrerak.....	30	-	30	22	20	2	73%	
6.- Inbertsioak besterenganatzea.....	75	-	75	64	-	64	85%	
7.- Kapital transf. eta dirulag.	43	221	264	287	118	169	109%	
8.- Finantza aktiboen aldak.	3	770	773	25	18	7	3%	
9.- Finantza pasiboen aldak.	245	-	245	-	-	-	-	
SARRERAK	2.718	991	3.709	2.793	2.353	440	75%	
GASTUAK								
1.- Langile gastuak.....	645	-	645	620	619	1	96%	
2.- Zerbitz. eta ondasun erosk.	838	59	897	824	712	112	92%	
3.- Finantza gastuak.....	107	-	107	44	44	-	41%	
4.- Transf. eta dirulag. arruntak.....	418	3	421	349	318	31	83%	
6.- Inbertsioak.....	583	894	1.477	706	618	88	48%	
7.- Kapital transf. eta dirulag.	66	6	72	71	61	10	99%	
8.- Finantza aktiboen aldak.	6	29	35	32	20	12	91%	
9.- Finantza pasiboen aldak.	55	-	55	55	55	-	100%	
GASTUAK	2.718	991	3.709	2.701	2.447	254	73%	
SARRERAK – GASTUAK	-	-	-	92	(94)	186		

2. ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKETA				Milioi pta.	
	Hasier.	Kobrak./	Amaier.	egitekoa	egitekoa
	egitekoa	Baliogab.			
Zordunak.....	331	14	181	136	
Hartzekodunak.....	132	-	132	-	
ITXITAKO AURREKONTUAK	199	14	49	136	

3. 1999 URTEALDIKO AURREKONTU EMAITZA	Milioi pta.
Likidatutako eskubideak	2.793
- Aitortutako obligazioak	(2.701)
- Itxitako urtealdietako zordunak baliogabetzea	(14)
Itxitako urtealdietako hartzekodunak baliogabetzea.....	-
URTEALDIKO EMAITZA	78
Diruz. gerakinaz finantzatutako gastuengatik emaitza	(720)
Finantza desbideraketengatik emaitza.....	(230)
Doitutako aurrekontuaren emaitza	1.028

4. 1999 URTEALDI ITXIERAN DIRUZAINZA GERAKINA	Milioi pta.
99.1.1ean diruzaintza gerakina.....	903
99 urtealdiko aurrekontu emaitza.....	78
- Gaudimengabeziatarako horniduraren aldaketa.....	(30)
- Itzulketengatiko zordunen aldaketa.....	(13)
Diruzaintza Gerakinaren bestelako aldaketak	(103)
99.12.31n DIRUZAINZA GERAKINA	835
Diruzaintza.....	692
Aurrekontuzko zordunak.....	576
Aurrekontuz kanpoko zordunak	52
Gaudimengabeziatarako hornidura.....	(158)
Aurrekontuzko hartzekodunak	(254)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(60)
Itzulketengatiko hartzekodunak.....	(13)
99.12.31n DIRUZAINZA GERAKINA	835
Finantzaketa desbideraketengatik DG	182
Gastu orokorretarako DG	653

5. ZORPIDETZA	Milioi pta.
99.12.31n zorra	675

6. 1999ko abenduaren 31n EGOERA BALANTZEA

Milioi pta.

AKTIBOA	99ko ab.	98ko ab.	PASIBOA	99ko ab.	98ko ab.
HIGIEZIND. MAT. ETA EZMAT.	4.813	4.854	BEREZKO FONDOAK	2.834	2.502
Erabilpen orokorrekoak	-	-	Ondarea	9.480	9.199
Higiezindu ezmateriala	206	176	Erabilpen orokorreko ondarea eta egoera bereziak	(7.310)	(6.978)
- Pilatutako amortizazioa	(161)	(120)	Urtealdiko ondare emaitza	664	281
Higiezindu materiala	6.512	6.231			
- Pilatutako amortizazioa	(1.744)	(1.433)			
FINANTZA HIGIEZINDUA	312	312	KAPITAL DIRULAGUNTZAK	2.458	2.734
Inbertsioak eta kredituak	312	312	EPE LUZEKO ZORRA	620	675
ZORDUNAK	470	237	EPE MOTZ. HARTZEKODUNAK	314	196
Aurrekontuzkoak	576	331	Aurrekontuzkoak	254	132
Aurrekontuz kanpokoak	52	34	Itzulketengatikoak	13	-
- Gaudimengab. hornidura	(158)	(128)	Aurrekontuz kanpokoak	47	64
FINANTZA KONTUAK	698	759	EPE MOTZEKO ZORRA	55	55
Epe motz. emand. kredituak ...	6	9	EZARTZEKO DAUDEN SARRERAK	12	-
Diruzaintza	692	750			
AKTIBOA	6.293	6.162	PASIBOA	6.293	6.162

7. 1999 urtealdiko GALERA IRABAZIEN KONTUA

Milioi pta.

GASTUAK	99 urt.	98 urt.	SARRERAK	99 urt.	98 urt.
Langile gastuak	625	579	Zerga zuzenak	614	577
Kanpoko zerbitzuak	819	830	Zeharkako zergak	37	140
Tributuak	-	-	Salmentak eta zerb. ematea	362	373
Emandako transf. eta dirulag. .	417	366	Transf. eta dirulag. arruntak	1.284	1.201
Higiez. amortizatzeko hornid..	351	320	Emaitzara aldatutako kapit. dirulag.	562	-
Gaudimengab. hornid. aldak...	30	128	Bestelako kudeaketa sarrerak	88	286
Finantza gastuak	44	53	Interesak	17	27
Aurreko urteald. galerak	14	47	Aurreko urtealdietako irabaziak ..	-	-
GASTUAK	2.300	2.323	SARRERAK	2.964	2.604
			ONDARE EMAITZA	664	281

ERAKUNDE AUTONOMOAK / Urteko kontuak

1999KO LIKIDAZIOA: ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK			Miloi pta.
			Giz Zerb.
	Polikiroldegia	Turismoa	Fundaz.
3.- Tasa eta prezio publikoak	56	3	23
4.- Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	28	101	61
5.- Ondare sarrerak	1	-	-
7.- Kapital transferentziak eta dirulaguntzak.....	4	-	-
8.- Finantza aktiboen aldaketa.....	1	-	-
9.- Finantza pasiboen aldaketa	-	-	17
SARRERAK	90	104	101
1.- Langile gastuak	40	27	72
2.- Zerbitzuak eta ondasun erosketak.....	44	55	16
4.- Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	-	27	-
6.- Inbertsio errealak	4	-	-
8.- Finantza aktiboen aldaketa.....	1	-	-
9.- Finantza pasiboen aldaketa	-	-	17
GASTUAK	89	109	105
SARRERAK – GASTUAK	1	(5)	(4)
Diruzaintza gerakina	2	0	0

99.12.31N EGOERA BALANTZEA			Miloi pta.
			Giza Zerb.
	Polikiroldegia	Turismoa	Fundaz.
Higiezindu materiala.....	491	34	61
Zordunak	1	3	5
Diruzaintza.....	7	1	6
AKTIBOA	499	38	72
Ondarea.....	(83)	9	(6)
Erabilera orokorreko ondarea eta egoera bereziak	591	33	73
Urtealdiko ondare emaitza	(18)	(8)	(6)
Kapital dirulaguntzak	4	-	-
Aurrekontuzko hartzekodunak	2	3	7
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	3	1	4
PASIBOA	499	38	72

I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/TVCP, conforme a lo establecido en la Ley 1/88 reguladora del mismo, ha realizado una revisión limitada de la Cuenta General y de la actividad económico-financiera del Ayuntamiento de Zarautz en el ejercicio 1999, incluida en el Programa Anual de Trabajo abril 2000-marzo 2001.

El trabajo realizado incluye la Administración Municipal, los organismos autónomos del Ayuntamiento y la Junta Municipal de Beneficencia (no hay sociedades públicas). Las áreas analizadas han sido las siguientes:

- organización general
- contabilidad presupuestaria
- controles presupuestarios y contables
- procedimientos aplicados en la gestión y recaudación de tributos
- gestión de personal
- contratación de servicios y obras
- concesión y control de las subvenciones

El Ayuntamiento de Zarautz, con una población de 19.716 habitantes a 1/1/98 (última cifra disponible), integra en su estructura tres organismos autónomos:

- Udal Kiroldetia–Polideportivo Municipal.
- Turismo Bulegoa–Oficina de Turismo.
- Gizarte-Zerbitzuetarako Fundazio Publikoa–Fundación Pública de Servicios Sociales (guardería municipal).

Es también titular de la Junta Municipal de Beneficencia, aunque los presupuestos y cuentas de esta entidad no se integran en los del Ayuntamiento, al considerar que se trata de una entidad independiente.

El Ayuntamiento participa en las siguientes sociedades:

- Zarauzko Industrialdea, SA (participación del 24,5%, los otros accionistas son Sprilur, SA, 51%, y la Diputación Foral de Gipuzkoa, 24,5%).
- Abendaño Industri Sustapena, SA: para la gestión de suelo industrial en el polígono de este nombre (50%, siendo la Diputación Foral de Gipuzkoa propietaria del 50% restante).

Además, forma parte del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, de la Mancomunidad Urola Costa, y de la asociación de agricultura de montaña Urkome.

II. CONCLUSIONES

II.1 CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

Personal

1. El Ayuntamiento abonó durante el ejercicio 8,5 millones de ptas a 26 concejales, por la asistencia a reuniones o el desempeño de funciones de coordinación de áreas o servicios, sin practicar retenciones fiscales ni declarar estas retribuciones a la Hacienda Foral.
2. El Ayuntamiento aprobó para 1999 la aplicación del Arcepafe, con un incremento salarial respecto al ejercicio anterior del 1,9%. Esto incumple la Ley de Presupuestos Generales del Estado para 1999, que establece que las retribuciones de ese año no debían experimentar un incremento superior al 1,8% (art. 20.2 de la Ley 49/98).
3. El Ayuntamiento utiliza el epígrafe “nivel de complemento de destino” de la Relación de Puestos de Trabajo para indicar el nivel retributivo asignado a cada trabajador (o nivel de Arcepafe). Esto incumple la normativa y, además, puede inducir a error ya que los intervalos de niveles legales y los del Arcepafe son diferentes (art. 15.1 de la Ley 6/89 de la Función Pública Vasca y art. 1.2 del Decreto 343/92 de Retribuciones de los Funcionarios de la Administraciones Públicas Vascas).

Contratación

En la revisión de 21 contratos, que originaron gastos en 1999 por 647 millones de ptas, se han detectado los siguientes incumplimientos (ver anexo A.2):

4. La adjudicación de los contratos de Urbanización del Entorno del Edificio de Hacienda Municipal y de Montaje e Instalación de Sonido para Actuaciones de Fin de Semana, por importes de 13 y 6 millones de ptas, se realizó sin publicidad ni concurrencia. En este último contrato tampoco se respetaron los trámites previstos por la normativa, como la confección de los pliegos administrativo y técnico, y no se exigió al contratista la certificación de estar al día con Hacienda y la Seguridad Social (arts. 11 y 20.f de la Ley 13/95 de Contratos de las Administraciones Públicas/LCAP).
5. El Interventor no fiscalizó la autorización ni la adjudicación de 10 expedientes de contratación, por importe de 195 millones de ptas (art. 11.2.g de la LCAP).
6. En dos contratos, adjudicados en un importe total de 79 millones de ptas, no se exigió a los licitadores la clasificación de la empresa para el objeto del contrato (art. 25 de la LCAP).
7. La obra de Rehabilitación de la Torre de Santa María la Real, adjudicada en 36 millones de ptas, fue liquidada en 47 millones, aprobando el Ayuntamiento a posteriori una modificación del proyecto inicial para convalidar los trabajos ya realizados (arts. 11.2 y 146 de la LCAP).

Subvenciones

8. El Ayuntamiento no ha comprobado la justificación de los gastos realizados en la subvención concedida a la televisión local Cabledis, SA (14 millones de ptas), incumplimiento que también se produce en 12 subvenciones concedidas por el organismo autónomo Oficina de Turismo (importe total de 4 millones de ptas). Además, y con carácter general, no se verifica al conceder las subvenciones que los beneficiarios se encuentran al día en sus obligaciones fiscales (art. 50 del DF 96/92 Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales).

Presupuesto

9. El Pleno del Ayuntamiento aprobó en mayo de 1999 una subvención por 10 millones de ptas, sin que existiera consignación presupuestaria prevista para este gasto. La modificación presupuestaria que hubiera sido necesario realizar con carácter previo a la aprobación del gasto no fue realizada hasta el 31 de diciembre de 1999 (art. 19 de la NF 4/91 Presupuestaria de las Entidades Locales).

Junta Municipal de Beneficencia

La Junta Municipal de Beneficencia, entidad creada por el Ayuntamiento en aplicación de la Ley 20.6.1849, gestiona la Residencia de Ancianos Santa Ana. Históricamente, la Junta ha desarrollado su actividad de un modo independiente, a pesar de que la citada Ley establece su carácter público.

10. El Ayuntamiento no controla a la Junta Municipal de Beneficencia como una entidad pública dependiente y, por ello, la Junta no respeta el régimen económico general de control presupuestario, y el Pleno no ha aprobado los estatutos de esta entidad, el precio público que aplica, el presupuesto y las cuentas anuales, y sus actividades no han estado sujetas a la fiscalización de la Intervención municipal.

11. La Junta contrató durante 1999 a 14 empleados temporales, utilizando solo en dos ocasiones la lista de aprobados de las pruebas selectivas realizadas en 1998. En los 12 contratos restantes, con unas retribuciones totales de 9 millones de ptas, no se han respetado los principios de igualdad, mérito y capacidad.

II.2 ASPECTOS CONTABLES

12. Al cierre del ejercicio de 1999 existían liquidaciones del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, por 25 millones de ptas, y de otros tributos, por importe de 10 millones de ptas, pendientes de contabilizar como ingresos, deficiencia que tuvo su origen en problemas relacionados con el cambio de sistema informático.

II.3 ASPECTOS DE GESTIÓN Y RECOMENDACIONES

Presupuestos y contabilidad

13. Control del gasto comprometido (fase D)

El Ayuntamiento solo contabiliza el gasto comprometido en las contrataciones más importantes, que se adjudican por la Comisión de Gobierno. En los demás casos no hay anotación contable ni control de Intervención hasta que llega la factura correspondiente. El Ayuntamiento dispone de un documento denominado "propuesta de gasto", previsto para anotar el encargo de los trabajos, pero se remite a Intervención posteriormente junto con la factura.

Utilizar de un modo correcto las "propuestas de gasto", regulando los importes en que este documento resulta aplicable, y contabilizar la fase D de compromiso del gasto.

14. Otros aspectos

- El Ayuntamiento debería incluir en el Presupuesto anual una Memoria descriptiva de las acciones a realizar en el ejercicio, y de los objetivos a alcanzar a través de las mismas, lo que permitiría al Alcalde y al Pleno realizar un mejor seguimiento posterior de la gestión.
- La ejecución de las inversiones presupuestadas para el ejercicio es muy baja, el 48% del presupuesto definitivo del capítulo, siendo inferior, incluso, al importe de los proyectos no realizados en el ejercicio anterior e incorporados al presupuesto de 1999 (a pesar de estas deficiencias de planificación presupuestaria, el volumen de inversión municipal es elevado, como se indica en el apartado III. Análisis Financiero).
- La regularización directa de saldos deudores extrapresupuestarios, por importe de 103 millones de ptas, es incorrecta, ya que hubiera debido imputarse al presupuesto de gastos del ejercicio, contabilizando un pago en formalización contra un ingreso del mismo tipo en la rúbrica regularizada.
- Las retribuciones de los cargos con dedicación y las del personal eventual de confianza deben contabilizarse en artículos específicos de gastos (10 y 11), y no en las partidas de personal temporal. Además, los pagos por dietas de asistencia a reuniones deben clasificarse en el capítulo 2, y las asignaciones a grupos políticos en el 4 de subvenciones.

Gestión tributaria y recaudación

15. Impuestos gestionados por la Diputación Foral

La Diputación gestiona la recaudación ejecutiva del IBI e IAE, comunicando mensualmente al Ayuntamiento las incidencias que se producen y practicando liquidaciones trimestrales. Éste da de baja los recibos que envía, y anota los cobros trimestrales en el presupuesto corriente, manteniendo un control extracontable de los saldos pendientes de cobro (según este control, los recibos pendientes a 31.12.99 ascenderían a 27,5 millones de ptas).

Los recibos enviados a ejecutiva deben permanecer en los estados contables como pendientes de ingreso, estableciendo procedimientos de gestión para analizar la situación de aquéllos cuyo cobro se atrasa. Una opción a considerar por el Ayuntamiento puede ser también la gestión directa de la vía de apremio.

16. Otros aspectos

- Los padrones cuatrimestrales de Agua y Alcantarillado se pusieron al cobro durante 1999 sin la aprobación del Alcalde.

Personal

17. Plantilla

Durante el ejercicio 1999, el Ayuntamiento ha realizado 61 contratos de personal temporal, de diversa duración, cifra muy elevada en una entidad con una Relación de Puestos de Trabajo-RPT que era de 81 personas al inicio del ejercicio, y los pagos a este tipo de personal han supuesto en el ejercicio 1998 el 28% y en 1999 el 37% de los gastos totales de personal. La modificación de la RPT aprobada en el ejercicio eleva la plantilla estable hasta 90 personas, pero solo ha servido para corregir parcialmente esta situación.

Definir las necesidades actuales de plantilla estable y, para los puestos ya creados en situación de vacante, realizar contratos de interinidad hasta la realización de las pruebas selectivas. Identificar con un criterio restrictivo los servicios a prestar a través de contratos de carácter temporal.

18. Sentencias por reclamaciones de contratados temporales

El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha declarado en enero y marzo de 2000 el carácter indefinido de dos contratos temporales de obra o servicio, que provenían de 1992 y 1995. Además, el Ayuntamiento debe crear las plazas correspondientes y cubrirlas en un proceso selectivo de personal, momento en que deberá indemnizar al empleado si no resulta seleccionado. Una de estas dos plazas ya había sido creada en la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo de 1999, previéndose convocar próximamente las pruebas selectivas para su cobertura, y la segunda no ha sido creada todavía a la fecha de este informe.

Regularizar esta situación creando la plaza que falta y convocando las pruebas selectivas.

19. Otros aspectos

- Elkarkidetzta: en aplicación del Arcepafe 97-99, se realizan aportaciones a esta entidad distribuidas en partes iguales entre el Ayuntamiento y los empleados que lo desean, equivaliendo la aportación municipal en 1999 al 1% del la retribución anual del empleado.

